



03

mesanotxean

Gazte lokalak

"Mesanotxean" izenburupean Gipuzkoako Foru Aldundiak kaleratzen duen e-GAZTEMIRA buletin elektronikoaren monografikoen bilduma da. Bertan Gipuzkoako haur eta gazteria politikekin zerikusia duen gairen bat jorratzen da hiru hilabeteen behin.

Eginkizun horretarako, "Gazte faktoria berritzegunea" izeneko enpresaren laguntza teknikoa dugu "Mesanotxean" bildumaren edukiak prestatzeko orduan, GFAko Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzuaren zuzendaritzapean.

Gazte lokalak

Haur eta gazteria politiken monografikoa 2010eko Urtarrila



mesanotxean

mesanotxean 03

Izenburua: Gazte lokalak

Egileak: Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusia. Gizarte Politikako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Gazte Faktoria: Joxe Jimenez eta Olatz Miranda (edukien laguntzailea)

Bilduma: Mesanotxean. Haur eta Gazteria politiken monografikoa

Bildumaren koordinazioa: Edorta Bergua (GFA) eta Joxe Jimenez (Gazte Faktoria)

Diseinua eta maketazioa: Gazte Faktoria Berritzegunea eta IPAR Komunikazio Grafikoa

Hizkuntz aholkularitza: Maramara Taldea

© Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusia. Gizarte Politikako Departamentua
Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaraldia: 2010eko Urtarrila

Oinarrizko dokumentua:

Gazteen lokalak, lonjak, txokoak ...

orrialde 4/11

Proposamenen dokumentua:

Nola lantzen dugu gazte lokalen gaia

Gipuzkoan?

orrialde 12/15

Tresnak

Gaiari buruzko gehiago jakiteko...

orrialde 16/17

Oinarrizko dokumentua:

Gazteen lokalak, lonjak, txokoak ...

Lokalen, lonjen eta txokoen eta abarren fenomenoaren jatorria zein den ez dakigu argi eta garbi. Nolanahi ere, badugu Iruñean, 90eko hamarkadaren erdialdean, alokatutako lehen etxabe edo bajaran berri. Pixkanaka, lokal horiek gure lurraldeko hainbat lekutan hasi ziren azaltzen. Gazteek helduen elkartean, *peña* deiturikoen eta txokoen formatua beren beharretara egokitu zuten. Ondorioz, Euskal Herrian ohikoa den fenomenoaren, hau da, aisia eremu herrikoiak sortzearen oinardeko bilakatu ziren.

Gaur egun, gero eta ugariagoa da gazteen lokalen fenomenoak. Moda kontua izango da agian, baina ezin uka daiteke azken urteotan gune horiek izan duten gorakada. Euskal Herriko herri askotan, gero eta ohikoagoa da lagun taldeak elkartzea eta beren txokoa bilatzea.

Lokal horiek «lonja», «txoko» edota «bajera» izenez ezagutzen dira. Haien helburu nagusia lagunekin elkartzea eta biltzeko toki bat edukitzea izaten da. Gune horietan talde oso desberdinak aurki ditzakegu: neskaz osaturikoak, mutilenak, mistoak, hainbat lagun taldek osatutakoak, koadrila bakarrak osatuak, eta abar. Aniztasun horren atzean ordea, antzekotasunak ere badaude. Halakoetan biltzen diren gazteen hitzetan, berezko espazioa eta auto-kudeaketa dira, besteak beste, eremu horiei loturiko balio nagusiak. Zentzu horretan, aitortu beharra dago beti bilatu izan dituztela gazteek helburu eta nahi horiek. Fenomenoa beraz, ez litzateke hain berria, moduak edota ezaugarriak dira, akaso, aldatzen joan direnak.

Berezko espazio horien beharra eta auto-kudeaketa hobeto ulertzeari begira, Zesar Martinezek eta beste batzuek¹ 2002an egin zuten ikerketa batean oinarritutako hainbat ideia jasoko ditugu jarraian. Zesar Martinezek gazteek aisialdiarekin lotuta dituzten bi- zipen eta balioen azterketa egin zuen bere lanean. Horrekin batera, aisialdiaren eta gazteen nortasunaren eraketaren arteko harremanean sakondu zuen eta aisialdian helduekiko nahiz beste gazteekiko gertatzen diren bereizketa prozesuei arreta berezia jarri zien. Azterketa horren arabera, ikerleak lau espazio edota gune bereizi zituen: gune konpartituak, gune monitorizatuak, gune birziklatuak eta berezko guneak.

Gune konpartituak

Gune konpartituen kategorian aisialdirako ondorengo gune hauek sailkatu zituen: etxean eta familiaren baitan dagoen aisialdia; ikastetxeetan antolatzen diren aisialdirako eskolaz kanpoko jarduerak; nerabe nahiz gazteek denbora librean erabiltzen dituzten gune instituzionalak: kiroldegia, kultura-etxeak eta gizarte-etxeak, liburutegia; eta, azkenik, kontsumorako gune berriak (merkataritza zentroak eta ziberrak edo gune informatikoak). Gune horiek guztiek elementu bereizgarriak badituzte ere, gazteen irudikapenaren ikuspegitik badituzte ezaugarri bateratu batzuk:

- Helduekin konpartitu beharreko aisialdiko espazioak eta denborak: ez da «beren aisialdia» (mugaturik: erabakimena, protagonismoa...)

1. MARTÍNEZ, Zesar; Berrio-otxoa, Kontxesi; Hernández, Jone Miren. *Gaztetxoak eta aisialdia. Etorkizuna aurreikusten 2001-2002*. Bilbo: EusArgitarapen zerbitzua, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2002.

- Ez dago beren identifikazio-ikurren arabera adierazteko aukerarik. Emanda datorrien horretan moldatu eta integratu behar dira.
- Arauak jarraitzearekin eta kontrolatuta egotearekin loturikoak; arauak jarraitzea ez dute aisialditzat hartzen.
- Helduen neurrirako mundua; nolabaiteko jarraikortasuna, ez dago hausturarik, bereizteko aukerarik. Harreman kontraesankorrak.

Gune monitorizatuak

Autonomia ardatz hartuta, gune konpartituen ondoren kokatutako espazioak lirateke. Gazte-lekua, aisialdi taldeak, aisialdirako egitasmo bereziak, eta, kirol eta kultur taldea, dira bigarren kategoria honetan biltzen diren aisialdiko guneak.

Gune monitorizatuak, gaztetxoek aisialdirako helduek propio sortutako azpiegiturak eta jarduerak lirateke. Hartara, gaztetxoek aisialdian egiteko jarduerak helduen ikuspegiatik antolatzen dira. Gainera, jarduera eta aisialdirako aukera horiek egoitzetan kokatuta egoten dira, eta gehienetan, begirale edo hezitzaile baten ardurapean gauzatzen dira. Egituratutako edo programatutako ekintzak eskaintzen zaizkio bertan gazteari. Bestalde, hein handi batean, heziketa ez formalarekin lotutako egitasmoak izaten dira, zenbait trebezia eta gaitasun hobetzea izaten baitute helburu. Gazteen hitzetan:

- Gazteen aisialdirako helduek, beren ikuspegiari jarraiki, propio sortutako eta antolatutako azpiegiturak eta jarduerak.
- Egoitzetan kokatutako aisialdi egituratua, eta begiraleen ardurapean.
- Heziketa ez formalarekin lotutako egitasmoak, planifikatutako jardueren gauzapenean oinarrituta.
- Gustukoa gaztetxoentzat, baina konpromisoa eskatzen dute.

Gune birziklatuak

Gazteen autonomiari begira, hurbilago daude gune birziklatuak. Horrela deitzen diegu gaztetxoek haien aisialdian erabiltzen dituzten kaleko honako eremu hauei: plaza, parkea, aterpeak, aparteko zokoak, atariak eta etxabeak.

Aipatutako kaleko guneak, gaztetxoek hiriko altzarietatik aisialdirako hautatu eta bereganatutako leku publikoak dira. Edozein herritarrek erabil ditzakeen lekuak dira gazteek beraien denbora librean hartutako gune horiek. Besterik ezean, leku horietan gaztetxoek beraiek gustuko dutena egiteko modua dute, hau da, erabilera pribatua ematen diete publikoak diren gune horiei. Izan ere, gazteen berezko erabilera eta jarduerak

garatzeko joaten dira bertara; besteak beste, lagun taldea biltzeko eta denbora pasatzeko aukera ematen duten espazioak dira. Gazteen hitzetan:

- Gazteek altzari/ingurune urbanotik aisialdirako hautatu eta bereganatutako leku publikoak; gazteen erabilera pribatua ahalbidetzen duten leku publikoak.
- Gazteen berezko erabilera eta jarduerak garatzeko aproposak; taldea biltzeko eta denbora pasatzeko aukera ematen dutenak.
- Helduengandik apartatuta egitekoak; helduen ohiko aisialdiaren denbora eta espazioetatik at.

Berezko guneak

Gazteentzat aisialdia zer den ulertzeko, ezinbestekoa litzateke haiek aisialdirako erabiltzen duten gunea zerk osatzen duen ezagutzea. Izan ere, nerabeentzat gune horrek aisialdirako garrantzi handia hartzen du.


Berezko guneak aipatzean gazte lokalei-lonjei-bajerei, gaztetxeei eta taberna zonaldeei, egiten zaie erreferentzia. Hori bai, espazio horiek era eta izaera ezberdina eduki arren, gaztetxoek aisialdiaren inguruko bizipenetan eta irudimenean dituzten parekotasunak direla-eta kategoria berean daude jasota. Gazteen hitzetan:

- Gazteek aisialdirako aukeratutako edota sortutako eremuak.
- Helduen mundutik aparte bereganatutako espazioak eta denborak. Gazteen neurria egindako munduak.
- Berezko jarduerak eta adierazpenak bultzatzen dituzten guneak; Gazteen esperientzia kolektiboa garatzeko aukera eskaintzen dutenak.
- Gazteen kultura adierazpenetarako guneak.
- Askatasunezko eta gozamenezko bizipenei lotutako guneak; erabakimena eta protagonismoa sentitzekoak.

Azken kategoria honetan kokatuko genituzke, beraz, aztergai ditugun gazteen lokalak. Erabilera pribaturako nerabe eta gazteek sortutako tokiak dira. Haien ekimenari eta ahalgini esker sortutako lekuak. Gehienetan etxabe edo bajera bihurtzen diren espazioak, gazte talde batek jabeari alokatu eta txukundu ondoren.

Txikiagoak edo handiagoak izan, edozein kasutan haien beharrak asetzeko ondo hornituta dauden guneak dira, izan ere, gazteen hitzetan etxean bezain eroso egoten dira bertan. Handik eta hemendik lortutako sofak, telebistak, bideoak, *Play Station* kontsolak, musika aparailuak, gustuko apaindurek eta hozkailuak osatzen dute lokalaren azpiegitura. Gazteek diotenez, tokia lagunen artean txukundu eta garbitzen dute, eta oroko-

rrean, mantentze-lanetarako txandak antolatzen dituzte. Horrekin batera, araudia loka-
leko kideek adosten dutela adierazi digute, eta horrela lonjaren erabilera ordutegia eta
bestelako jarraibideak antolatzen dituztela.



ESPERIENTZIAK: GAZTEEN LOKALAK, LONJAK, TXOKOAK

Gogoeta honetan, fenomenoak deigarri egin den zenbait toki aipatuko ditugu. Horrekin batera, toki horietan antzeko kezkei erantzuteko zer esku-hartze egin diren ere jasoko dugu. Horrela, gazte lokalen dinamikak honako toki hauetan izan du protagonismo berezia: Portugalete, Eibar, Gasteiz, Tolosa eta Amurrio.

PORTUGALETE

Portugaleteko Udala aitzindaria izan da gune horien inguruan prozesu bat martxan jartzen. 2004. urtean *“Jóvenes y lonjas. Lugares comunes”*¹ izeneko egitasmoa gauzatu zuen.

Prozesu honen bidez, Udalak gazteen lokalen fitxategi bat osatu nahi izan zuen. Fitxategi hori osatzeko helburua, lokaletan biltzen ziren gazteekin biltzea eta lokalak zabalik mantentzeko haiek hainbat konpromiso hartzea izan zen. Lan hori betetzeko, Udalak bitartekari lana egin zuen eta bilera horietan, gazteekin, lokalen jabeekin eta bizilagunekin bildu zen.

Fitxategiaren helburua ez zen lizentziak eskaintzea, gazteen dinamika hori modu egokian gauzatzea eta arrisku egoerak gutxitzea baizik.

Prozesua ondorengo faseetan bete zen:

1. Egitasmoaren berri ematea.
2. Talde bakoitzak egoeraren aurrean zuen ardura ezagutzea.
3. Talde bakoitzaren konpromisoak zehaztea.
4. Dokumentazioa eta zehaztutako arauak biltzea.
5. Ikuskaritza.
6. Informazio eskaintza.
7. Ebaluaketa.

“Lokalen erabilera egokirako gomendio gida” ere zehaztu zen. Gidak, ondorengo gaien inguruko gutxieneko baldintzak zehazten zituen: azpiegitura, espazioaren antolaketa, soinuaren kontrola, higiene neurriak, animaliak, materialak botatzea, ardura zibileko aserua, berogailuak eta lokalerako sarbidea.

- Udalak ondorengo esku-hartzea eskaini zuen:
- Dinamika horrekin lotura zuten eragileei buruzko informazioa jasotzea.
- Helburuak lortzeko hausnarketa eta aholkularitza guneak eskaintzea.

1. AZKARRETAZABAL, Marta; PARREÑO, Rai. *Jóvenes y lonjas. Lugares comunes. Guía y recomendaciones para minimizar riesgos y mejorar la convivencia en el uso de lonjas para ocio recreativo juvenil. Portugalete: Portugalete Udalaren prebentzio saila, 2007.*

- Informazioa zabaltzeaz eta aholkularitza egiteaz arduratzen zen drogazaletasuna prebenitzeko lantaldea haien esku jartzea.
- Arriskuak gutxitzeari begira informazioa, orientazioa eta aholkularitza eskaintzea.
- Autokontrola eta arriskuen gutxitzea sustatzeko tailerrak eskaintzea.
- Gazteen lokalen inguruko informazioa ematea eskatzen duen bizilagun orori.
- Programan parte hartzeko prest zeuden pertsona guztien zerrenda egitea.
- Gatazkak kudeatzeko bitartekaritza saioak egitea. Gatazkarik egon ezean, horiek ekiditeko saioak.

Egitasmoan parte hartzeak, ez zuen lokala irekitzeko beharrezko baimena bermatzen.

EIBAR

Udalerrri honetan, gazte taldeei, beren bilerak eta jarduerak egiteko, eta koadrilako lokalak mantentzeko diru-laguntzak² eskaintzen zaizkie. Gipuzkoan Eibar izan da lokalen egoera erregulatzen saiatu den eta horretarako diru-laguntza eskaini duen lehen udalerrria. Besteak beste, gune horiek baldintza egokian mantentzen daitezkeen bermatu nahi da eta gazteen eta bizilagunen arteko harremana egokia izan dadin bultzatu.

Gune horietako segurtasun neurriak hobetzeak, elektrizitate instalazioak edota sute-etarako irteerak egokitzea dakar, besteak beste. Horretarako, egitasmoaren bidez lokal bakoitzeko 1.500 euroko kopurua eskaintzen da. Hirigintza sailak kudeatzen duen lan lerro honek bi baldintza jartzen ditu:

- Taldeak gutxienez hamabi kide izatea eta guztiak Eibarren erroldatuta egotea.
- Taldekideak 16-25 urte bitartekoak izatea.

AMURRIO

2009ko urtarrilean, Amurrioko Udalak gatazkak konpontzeko bitartekaritza zerbitzua jarri zuen abian. Herriko Kultur Etxean kokaturik dagoen zerbitzu honek bizilagunen artean gertatzen diren gatazkak kudeatzea du helburu. Gatazkak hainbat arrazoik eragindakoak izan daitezke; soinuak, ordainketa ezak, eta abar. Azken urteotan, gazteen lokalen harira sortutako kezkak ere aztergai dira espazio horretan.

2. Eibarko Udala (2009). Diru-laguntzak, herriko gazte taldeen edo koadrilan lokalak mantentzeko Oinarriak eta Eskaera orria.

TOLOSA

Gazteen jarduera honek Tolosako bizilagunen artean sortu zituen kezka eta beldurrak kudeatzeari begira, bertako Udalak lokaletan biltzen ziren gazteei hainbat bilera egitea³ proposatu zien. Bileren helburu nagusiak honako hauek ziren:

- Gazteen lokaletako jarduerak herritarrekin sortutako elkarbizitzako arazoak ekiditeari begira, konpromiso minimo batzuk zehaztea.
- Gazteen eta inguruko segurtasuna hobetzeari begira, oinarrizko segurtasun neurriak zehaztea.

Horretarako, Udalak ondorengo konpromisoak hartu zituen:

- Hausnarketa eta aholkularitza gune bat eskaintzea.
- Arriskuak gutxitzeari begira, informazioa, orientazioa eta aholkularitza eskaintzea.
- Bizilagunei informazioa eskaintzea gazteen lokalei eta abian jarritako prozesuari buruz.

Gazteek ondo hartu zuten Udalaren ekimena. Egitasmoak, gainera, gazteek eskubi-deen eta betebeharren inguruan zituzten zalantzak argitzea eta beharrezko konpromisoak hartzea erraztu zuen. Horrekin batera, bizilagunen aldetik bi salaketa jasoz gero lokala ixtea adostu zuten. Aurrerantzean gainera, lokalaren jabeak ezingo luke helburu horrekin alokatu.

Udaleko teknikarien hitzetan, prozesu honek kexarik egongo ez dela bermatzen ez badu ere, bizilagunen eta gazteen arteko elkarbizitza erraztu du. Lokal kopurua oso handia ez izateak bestalde, egitasmoa aurrera eramatea ahalbidetu du, izan ere, horrelako esku-hartzeek lan handia dute atzetik.

Tolosan gauzaturiko dinamika honek gazteen lokalen arteko harremana sustatu du, eta Udaleko Gazteria Sailarekiko gertutasuna areagotu du. Nabarmendu beharra dago, gainera, gune horietan elkartzen diren gazteen artean sortu den sare dinamika berria; *Txapin festa*, kale jarduera indartzea eta herriko gazteak kalean topatzea helburu duena.

GASTEIZ

Gasteizen, lokalei lotuta Ai Laket!⁴ izeneko elkarteak drogen prebentziorako programa jarri zuen abian. Hasieran, elkarte bera izan zen gazteengana hurbildu zena; aurrerantzean eskaerak gazteek egitea da asmoa.

Egitasmoaren helburua gazteei informazio zehatza eta egiazkoa eskaintzea izan da. Hortik aurrera, gazte bakoitzak beharrezko baliabideak izango ditu bere nahiak kudeatzeko. Elkarte honetako kideen hitzetan, gazteen lokaletara gonbidatu moduan joaten dira. Hortaz, gazteek beraiek erabakitzen dute zehazki zertaz hitz egin eta zer gaitan sakondu nahi duten.

3. Tolosako Gazte Informazio Bulegoa. Triangulo Plaza, 1. Telf: 943 67 03 83. e-mail: gazteria@tolosakoudala.net

4. Ai Laket!! · Droga erabiltzaileak arrisku murrizketaren alde · Gasteiz · Araba · 945 23 15 60 · ailaket@ailaket.com <http://www.ailaket.com/euskara/ailaket.asp>

Proposamenen dokumentua:

Nola lantzen dugu gazte lokalen gaia Gipuzkoan?

Marko kontzeptuala ezarri eta esperientziak aztertu ondoren, une honetan Gipuzkoan antzematen ditugun gazteen lokalen alderdi aipagarrienen erradiografia txikia egiten saiatzen ari gara.

Gazteen lokalen fenomenoak oihartzun handia izan du azken urteotan, horretan ez dago zalantzarik. Ez dago jakiterik ordea, Gipuzkoan zenbat dauden edo zenbat sortu diren; ez dago kopuru zehatzik. Izan ere, izaera pribatuko jarduera izanik, ez dago horren inguruko errolda edo zerrendarik.

Kontsumo ereductan gertaturiko aldaketak direla-eta, merkataritza erabileratara bideraturiko hainbat lokal oso azkar desagertu dira. Inork ez ditu nahi. Batzuk, gazteentzako etxebizitza edo loft bilakatu dira; beste batzuk, gazteentzako lokalak dira orain.

Lehen hurbilketa batean adieraz dezakegu lokal gehiago dagoela hirietan (Donostia, Eibar, Errenteria, Tolosa...) landa ingurunean baino. Hau da, zenbat eta gazte gehiago, orduan eta lokal gehiago. Horrekin batera merkataritza-lokalen errentaren beherakada dago. Bi faktoreak erabakigarriak dira lokal gehiago ala gutxiago egoteko. María Teresa Laespada 2007an eginiko azterlan baten arabera¹, gazteen %29k astero erabiltzen ditu gune horiek; %17k gutxienez astean hiru aldiz erabiltzen du lokala, eta %12k pixka bat gutxiago. Datu horiei esker atera dezakegu lehenengo ondorioa; alegia, gazteen topaleku nagusia direla lokal horiek.

Era berean, beharrezkoa da esatea Udalak gune horietan eginiko esku-hartze publikoek bizilagunek eginiko kexuetan dutela jatorria. Bizikidetzaz gatazka horien aurrean (zaratak, higiena, drogak, eta abar), zenbait herritan Udalak hainbat mekanismo jarri ditu abian gazteek beren jarduerak zer baldintzatan eta zer helbururekin egiten dituzten aztertzeko. Ohikoena da hirigintzako, segurtasuneko eta ingurumeneko unitate administratiboetatik erantzutea, eta ez gazteria zerbitzuetatik. Udal gehienetan konponbide puntuala eman diete arazoei tokiko erakundeek dituzten araudi orokorrak baliatuta.

Nolanahi ere, Eibarrek, Portugaleteren eredia jarraituta, araudi espezifikoa bat sortu du gazteen lokalen erabilera arautzeko. Erregelamendu horretan gazteek beren lokalean egoteko baimena eskuratu nahi badute zer betebeharrak dituzten ezartzen da². Eskakizun horrekin lotuta, udalak diru-laguntzak ditu jarduera baimena duten taldeentzat soilik, lokalen mantentze-lanetako gastuak ordaintzen laguntzeko. Taldeek jaso dezaketen gutxienezko diru-laguntza hileko 60 €-koa da, eta gehienez, urteko 720 €-koa.

Bestalde, Tolosako esperientziak beste esku-hartze eredu bat ikusten laguntzen digu. Esku-hartze hori Gipuzkoako haurren eta gazteen sustapeneko udal zerbitzuetatik egin daiteke. Bizilagunei eta gazteei informazioa eskaintzen laguntzea, sare sozialen sorrera erraztea eta gazteen lokalei komunitatean dinamikak sortzeko (Txapin Eguna: gazte lokalen eguna) laguntzak ematea da haien zeregina.

1. María Teresa Laespada Martínez. *Las lonjas: una participación ciudadana efectiva*. Deusto: Instituto Deusto de Drogodependencias de la Universidad de Deusto, 2007.

2. Eibarko Udala. *Oinarriak; herriko gazte taldeei edo gazteen kolektiboek, 2009an, euren bilerak eta jarduerak egiteko eta koadriletako lokalak mantentzeko, udalak emango dizkien dirulaguntzak jasotzeko bete behar dituzten baldintzak arautzekoa*. Eibar: Eibarko Udala, 2009.

Udal askoren zailtasuna gai horretan erreferentziarik ez izatea izan da. Esperientzia gutxi daude egoera horren inguruan, eta beraz, ez dago ildo garbirik. Horrekin batera, udalerrri bakoitzaren berezitasuna azpimarratu beharra dago, gazteen lokal horien dinamika baditu antzekotasunak herrien artean, baina aldi berean, herri bakoitzak bere dinamika ditu. Horrela, fenomenoak hainbat tokitan arreta erakarri duen arren, beste hainbat tokitan ez du inolako eraginik izan.

Gazte lokalekin lan egiteko ildoak

Haur eta gazteria zerbitzuek gazte lokalen arloan egiten duten lanari ikuspegi berria emateko, aintzat hartu beharreko zenbait proposamen interesgarri planteatu nahi ditugu ondorio gisa.

- Gazteak zuzenean arazoekin eta perbertsioekin identifikatzea saihestea.
- Bizilagunak, arduradun publikoak eta gizartea bera sentsibilizatzea gune horien baliorearen inguruan, auto-ikasketarako guneak baitira autonomia pertsonalaren eta emantzipazioaren bidean.
- Gazteen lokalei aisiarako gune gisa duten garrantzia aitortzea, bertan beste pertsona batzuekin bizi behar izaten baitute, mantentze-lanetaz eta kudeaketaz arduratu behar izaten dute, eta negoziatzen ikasten dute...
- Gazteen sozializazio prozesuan duten garrantzia aitortzea eta gune horiek koordinatzeko eta sustatzeko eta informazio, aholkularitza eta bitartekotza eskaintzeko programak edo zerbitzuak sortzea.
- Lokalak gazteen topagune gisa berrerabiltzeko joerak abandonu egoeran zeuden guneak biziberritzen eta hiri-ehunduraren degenerazioa saihesten lagundu duela azpimarratzea.
- Gazteen lokalak helduen elkarte eta txokoekin identifikatzea. Bertan egiten diren jarduerak ez baitira hain desberdinak: hitz egitea, abestea, kartetan edo Play Stationarekin jolastea, jatea, edatea, erretzea, festak eta irteerak antolatzea, eta abar.
- Gazteen lokalekin zerikusia duten gaien inguruko informazioa eta aholkularitza eskaintzea bizilagunei eta teknikariei.
- Lokalek osasungarritasun eta segurtasun neurri egokiak izan ditzaten ziurtatzeko diru-laguntza bereziak sortzeko aukera aztertzea.
- Gazteen eta bizilagunen edo bizilagun komunitateen eta Udaleko sailen artean egon daitezkeen gatazketan bitartekari lanak egitea.
- Gazteen lokalen artean gizarte sareak sor daitezen sustatzea eta haiei laguntzea.
- Gune horietatik sortzen diren gazteen ekimen komunitarioak babestea.
- Gazteen lokalek sustaturiko ekintza komunitarioak egiteko koadrilei zuzendutako diru-laguntza ildo berri bat sortzearen egokitasuna aztertzea.

- Lokalen sarearen bitartez osasun arloko prebentzio kanpainak egiteko aukera aztertzea (drogak, sexualitatea, generoa, psikologia ...).
- Lokal hauei bereziki zuzendutako araudiak sortzeak ekar dezakeen estigmatizazioari buruz eztabaidatzea.

*Zerrenda honetan gai gehiago eranstea zure esku dago. Azken finean, gure asmoa haurren eta gazteen sustapenaren eremuan lan egiten dugun eragileok hausnartzeko ideiak proposatzea baino ez da, eta arlo honetako premia aldakorrei gero eta gehiago egokitzen zaizkien politikak diseinatzen lagunduko duten eztabaidak bultzatzea. **Anima zaituz eta bidali zure proposamenak honako helbide honetara: e-gaztemira@gipuzkoa.net***

Tresnak

Gaiari buruzko gehiago jakiteko...



Las lonjas: una participación ciudadana efectiva. LAESPADA MARTÍNEZ, MT.Deusto: Instituto Deusto de Drogodependencias de la Universidad de Deusto, 2007.



Gaztetxoak eta aisialdia. Etorkizuna aurreikusten 2001-2002. MARTÍNEZ, Zesar; BERRIO-OTXOA, Kontxesi; HERNÁNDEZ, Jone Miren; Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, Txostena – Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza . [linean] http://www.gazteaukera.euskadi.net/r52-20726/es/contenidos/informe_estudio/o_etorkizuna20012002/eu_etorkizu/adjudicaciones/etorkizuna20012002.pdf[kontsulta: 2010eko urtarrilaren 22a]

Jóvenes y lonjas. Lugares comunes. Guía y recomendaciones para minimizar riesgos y mejorar la convivencia en el uso de lonjas para ocio recreativo juvenil. AZKARRETAZABAL, Marta; PARREÑO, Rai. Portugalete: Portugalete Udalaren prebentzio saila. [linean] <http://gipuzkoagazteria.net/admingazteria/dokumentuak/Proyectojovenesylonjas0408.pdf> [kontsulta: 2010eko urtarrilaren 22a]




Tolosako gazteek Txapin Eguna jai herrikoia antolatu dute lehenengoz. Noticias de Gipuzkoa [linean] Donostia, 2008. <http://www2.noticiasdegipuzkoa.com/ediciones/2008/05/09/vecinos/tolosaldea/d09tol34.1022240.php> [kontsulta: 2010eko urtarrilaren 22a]

Nolakoak gara Gazteak?. Galtzaundi aldizkaria [linean] Tolosa, 2009. http://www.nura.info/ficheros/gazteen_ikuspuntua_1254753670.pdf [kontsulta: 2010eko urtarrilaren 22a]

Gaztetxea Vs. Koadrilen lokalak? Barren aldizkaria. [linean] Elgoibar, 2005. http://www.elgoibarren.net/barren/barren_514_2005-01-21.pdf [kontsulta: 2010eko urtarrilaren 22a]

Gazteen txokoetako hormak estutzen. Berria. [linean] Andoain, 2008. <http://paperekoa.berria.info/plaza/2009-02-03/046/007/.htm> [kontsulta: 2010eko urtarrilaren 22a]

Lagunen lokalak: Gazteen eta erretiratuen sofak sekretuak kontatzen hasiko balira... (2009) <http://www.gaur8.info/edukiak/20090612/141991/Lagunen-lokalak—Gazteen-eta-erretiratuen-sofak-sekretuak-kontatzen-hasiko-balira>



Tolosako Txapin eguna 09. <http://www.youtube.com/watch?v=sLcUtibMVK8>



Eibarko Udala. (2009) Diru-laguntzak, herriko gazte taldeen edo koadrilen lokalak mantentzeko.

Oinarriak eta Eskara orria. <http://www.eibar.es/eibar/contenidos.item.action?id=5802752&menuId=0035853+Ei>

mesanotxean bilduma

- 01.** Gazteak eta arriskuaren kudeaketa.
- 02.** Emantzipazioa eta norberaren autonomia.
- 03.** Gazte lokalak.



Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Infancia y Juventud



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa